

TXARKERIA

ZERGAITIK

Lur onetan bizi dan artean gizonari aurkezten jakon arazorik kezkarrieneratariko bat, txarkeriarena izaten da.

Jaungoiko alguztidunaren maitasuna sinisten dauan edozeiñentzat sortzen da txarkeriaren arazoa baiña arazo ori aundiagoa da Jaungoikoa ukatzen dauanarentzat. Arlo onetan deistak zaurigarriago dira. Ori agertzen dau Harry Kushner'en liburutxu batek, orretarako alegiña egiten dau beintzat eta gogamen asarregaria agertzen dau.

Liburu ori irakurteko astia izan dot eta irakurgai orretan Josu-lagundikoa da Pier Teillard de Chardin jakintsu ta mistikuaren liburu oargarria dan "Jaungoiko-Giroa" ondo ezagutzen dauala bururatu daust.

Harry Kushner'en liburua, Jaungoikoak bizia eta osasuna emoten ba'daustaz inglesetik euskerara ta gaztelera itzuli nai neuke. Idazti au Kushner'ek eta bere sendiak ebezan samintasunen ondorena da eta ondoren zintzoa ta egizkoa.

Bere semea gaitz batek gaztetan eriotzara eroan eban eta oiñaze ta gaiztakeriaren arazoari erantzuna emoteko, Jaungoikoagan daukon sinismena gordeko leuskion alegiña egiten dau. Oiturazko erantzunak begiztatu eta atzertzen dauz arduraz. Bere esperientzia edo oar-ikasia geide minduai agertzen dautse eta bere sinismena laguntza biurtzen jake eta aundiagotu egiten da.

Inguratzen gaituan txarkeriari buruz, ainbeste eroaten dauzala gogoratzen dau Jaungoiko alguztiduntasuna ukatzera eta uler-

men-era orreri eupada bat egitea nai dau aurpegia emoteko. Kushner'entzat Jaungoikoa ezin izan leiteke txarren eragille eta iturburu.

Bai beste aldera, minduta eta jasankor dagoanaren maitale, jazoten jakun txarrik nai ez dauana da Jangoikoa.

Gure bidera datorrenean Jaungoikoagan itxaropena eta uste ona euki geinke beti, bera guri laguntzeko prest dagoalako, berak ondo dakiala txarretik ona ateraten, beragana urreratu geintezela beti bear dogunean, une guztietan.

Idazle onentzat ez dago txarraren eta oiñazearen arazorik, azalpenak emoteko. Aunartzean ez dago ardurarik zergaitik dagon txarkeria edo zertarako jazoten jakun, bere izatea jakin eta beragaz zer egin bear dogun baiño.

Bigarren gai onetan, batez be, Harry Kushner'ek ekiten dau bere liburu goragarri onetan eta bere berbak zalantza bako ondoren ona lortzen dabe.

Txarraren eta oiñazearen gaia aztertzen dauan idazle onek idatzi dauanagaz ainbeste irakurlek artuko dabe atsedena ta arinaldia, berariz aren zintzotasun eta argibidea sakonak diralako, egizko argitasunean oiñarritzen dalako.

Liburua arduragarria da, irakurteko erreza, atsegiñezkoa eta guttiz garrantziduna.

Ain zuzen be, berak diñoananez, ez da akademi-giroko ertizaiña, zentzunezko jakintza darriona baiño, eta irakurleak laster jakingo dau zer esan nai dauan, buruan sartu jako egilleari.

EGILUZE'k